

Mikel Eskauriaza Ikonoak eraisteko daude



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Badira azalpen askorik behar ez duten irudiak, hau da bat. Ikusleari ezaguna egiten zaion enkuadrea erabiliz ateratako argazkiak ihartutako zuhaitz bat erakusten du, burdin forjatuzko hesi baten atzean, estilo neoklasikoko eraikin baten atarian. Argazkiaren erdi-erdian dago zuhaitza, eta ihes puntuak gure begirada enborraren oinera darama, handik gora egin eta adar hiletatik abailtzeko berriro lurrera, eta buelta berriro gora, loop hipnotikoan sartu arte.

Gernikako arbola hilda dago.

Ikonoen indarra itzela da, eta haiek gugan duten eragina gutxien badugu ere, esanez guk badakigula sinboloak direla, eraikiak direla, esanahi itxi batetik haratago joateko gai garela, ezin diegula boteretik eman, ezin diegula utzi gugan eragiten, ez dela zuhaitz ihartu bat besterik, kasu honetan, eta abar eta abar, sinboloak berdin egiten du bere lana.



DEAD TREE. GERNIKA 2004 (2004)

C Print. 125 x 175 cm

Bere arte lana argazki bidez egiten duen artista da Mikel Eskauriaza Bareño (Bilbo, 1969ko apirilaren 10a). Argazkigintzan eta paisaia-generoan aritzen da 90eko hamarkadatik hona. Argazkigintza erabiltzen du lurraldeko fenomenoak eta prozesuak behatu, dokumentatu eta interpretatzeko, bai eta beraien ondorio fisiko, politiko, ekonomiko eta sinbolikoak ere.

Ikuspegi dokumentala hartuagatik, ez zaio umorea eta ironia falta bere lanetan, irakurketa kritikoak egin zale da.

Hemen ikusten den argazkia adibide ona da. Bai eta *BAPORAK. Euskal ontzidía Indiako ozeanoan* lana ere. Izenburuak dioen bezala, Indiako ozeanoan arrantza egiten duten Euskal Herriko ontzien argazkiak egin zituen, XIX. mendeko pinturan ohiko bihurtu ziren itsas erretratuen eskema formal hartuz. Armadoreek eskatzen zituzten koadroak orduan, zilegitasuna irabazi eta boterea erakusteko.

Argazkiak egiten ditu, errealitatea ikusten laguntzeko. ■